

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2007-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen jardura ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena mamitu du, 2007ko ekitaldiaren gainekoa. Txostena 2009ko ekainaren 11n HKEEren Osokoaren kideen gehiengoak bere egitekoen aribidean data horretan onetsi du, nahiz kideetako bik boto partikularra egin duten.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak egin eta Foru eta Erakundeen Administrazioaren finantza egoera aztertzen du.

HKEEren iritzira, Foru Aldundiak legezkontasuna betetzeari dagokionez, 2007ko ekitaldian zehar ekonomia-finantza jardura indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan zehazten diren hainbat akats salbuetsita.

Honela, bada, Epaitegiak ebazteko dauden Europar Batasuneko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren aurrean aurkeztutako errekurtsoen emaitzaren gaineko zalantza azaleratu da, Europar Batzordeak 15/1993, 3/1996 eta 7/1996 Foru Arauen hainbat artikuluko ez-legezko izendatzeko erabakiei dagokienez. Iritzi bereko azaldu da ebazteko dauden beste hainbat errekurtsori dagokienez, Foru Epaitegi Ekonomiko Administrazioaren aurrean hainbat enpresak aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jasotako laguntza fiskalak itzultzeko eskatzen dutenak.

Bestalde, sarrera fiskalei dagokienez, HKEEk kritikatu egin du Finantzen Euskal Kontseiluak zehaztutako aparteko ekarpena ez zehaztu, ez arrazoitu izana, BFari 9 milioi euroko zenbatekoa eragin ziona, Foru Administrazioen arteko zerga erreklamazio guztiak behin-betiko kitatutzat eta baliogabetzat aitortzearen ondorioz.

Gai honekin berekin jarraiki, HKEEk azpimarratu du 22,7 milioi euroko ordainketa baten gerorapena 2007rako legez ezarritakoa baino interes tipo txikiagoarekin eman

duela eta beste bi kasutan, 7,9 milioi euroko zenbatekoarekin gerorapenak dagokion bermea aurkeztu gabe eman direla.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan salbuespenek azpimarratzen dute aztertutako 29 kontraturen esleipenean publizitate eta lehia printzipioak ez direla bete, guztira 5,7 milioi euroko zenbatekoa egin dutenak, izan ere, ez baita justifikatu printzipio horiek bideratzeko ezintasuna edo kontratuaren xedea zatikatu egin baita, beharrezko diren prozedurak sustatzera behartzen duten muga kuantitatiboetara ez iristeko.

Hiru obra kontratuk, 3,3, 2,6 eta 0,6 milioi euro egin dituztenek, exekuzioan zehar hainbat aldaketa jasan dituzte eta horiek kostuan, hurrenez hurren, % 51, % 84 eta % 58ko igoerak ekarri dituzte; hauek guztiak, nahiz araudiari jarraiki izapidetu ziren, kopuruaren garrantziak urratu egiten ditu kontratuen legerian jasotako lehiaketa printzipioak, desitxuratu egiten baita bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren bolumen ekonomikoa ere.

Diru-laguntzak emateari dagokionez, BFAk zuzenean eta deialdi publikoa egiteko ezintasuna egiaztatu gabe 17,1 milioi euroko 19 diru-laguntza eman ditu. Diru-laguntza molde honek apartekoa izan behar du eta alde zuzenetik deialdi publiko bitartez emakida egiteko ezintasuna justifikatu behar du.

BFAk 2007ko urtarrilean eraikuntzak osorik eraikitzekeo egitasmoa sustatzen duen enpresa pribatu batekin hitzarmena izenpetu zuen; horren indarrez, legez emangarri ziren diru-laguntza guztiak emateko konpromisoa hartu zuen, eta bereziki, langileen prestakuntza gastu guztiak diruz laguntzekoa; baita proiektuaren garapen eta berrikuntza gastu guztiak ere, zehaztu gabeko kopuruekin. Hitzarmenean aurreikusi diren laguntzak publizitate eta lehia printzipioak bete gabe eta horien zenbatekoa zehaztu gabe eman dira. 2007ko ekitaldian laguntza horien kontzeptupean ez da inongo zenbatekorik erregistratu.

Europako Erkidegoetako Auzitegiaren 2006ko ekaineko epaiak baliogabe izendatzen zuen 1995eko martxoan itsasoko garraio enpresa batekin eta errenta txikiko taldeei zuzendurik Bilbo-Portsmouth-Bilbo ibilbiderako “bidai-bonoak” erosteko izenpetutako akordioa; BFAk epai hori exekutatzeko gauzatu dituen ekintzek 9,7 milioi euroko

ondare galera eta foru ondarearen babesa, defentsa eta zaintza arautzen duen arautegia urratzea eragin du, ezinezkoa baita trukatu gabeko bonoak itzultzea euren eskuetan ez daudelako.

BFaren Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk uste du egoki erakusten duela 2007ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen isla leiala eta data horretan amaitutako ekitaldiaren finantza egoera, hainbat akats salbuetsita, erakunde fiskalizatzaileak onartzen ez dituen eragiketen erregistro irizpideak aplikatzearen ondorioz eta besteak beste, urteanitzeko gastu jakin batzuk eta ibilgetuko hainbat kontusail ez barne hartu izanaren ondorioz.

Txostenak, gainera, hiru erakunde autonomoak, % 50etik gorako partaidetza duten hamalau foru sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoa fiskalizatu ditu, erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzi orokorra eman duelarik, bertan jasotako ez betetze eta akatsak salbuetsita.

Salbuespen horien artean azpimarratzekoa da Bizkailur, SAK 2007ko abenduan Gernikan sozietate pribatu bati 19 milioi gehi BEZ ordainduta mahai-tresnen sektorea berregokitzeko plan batetarako industri lursail eta pabiloiak erosi izana, hirigintzako birkalifikazio jakin bat aurreikusiz, txosten hau idatzi dugun datan gauzatu ez dena. Egungo kalifikazioarekin lurzoruak gehienera 7,1 milioi euroko balioa du. Jarduera honek mesede egin liezaioke enpresa saltzaileari eta Estatuko laguntza modura kalifikatu; honenbestez, Europar Batzordeari jakinarazi behar zitzaiokeen merkatu komunarekiko bateragarritasuna neurtu ahal izateko, Europar Batasuneko Tratuaren 88. artikuluari jarraiki.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, dirulaguntzen emakidari, langileen kudeaketari eta gerorapenak ebatzi eta bermeak aurkezteko epeekin lotutako sarrera fiskalei dagozkienak. Idatz-zati honetan aipatutako egoera eta gomendioetarik zenbait, aurreko ekitaldietako fiskalizazio txostenetan barne hartutakoen pareko dira.

BFA, Erakunde Autonomo, Enpresa Publiko eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren kontuak ez ezik, Txostenari egindako hainbat Eranskin argigarri eta desadostasunezko boto partikularra oso-osorik txertatu zaizkio txostenari.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia  
Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas